

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea zenbait zerga erroldari

Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek, Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko irailaren 10ean egindako bilkuran hartutako erabakien aurka (ALHAOn argitaratu ziren, 106 zk., 2020ko irailaren 18an) erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betikotzat jotzen da, eta argitara ematen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako. Erabaki horrek 2020ko ekitaldiko zerga errolda hauek behin-behinean onesteari buruzkoa zen:

– Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren 2019ko hirugarren hiruilekoko tasa (espedientea: 2019/1/S328).

– Jarduera ekonomikoen gaineko 2020ko zerga (espedientea: 2020/1/S280).

2020ko urriaren 21etik abenduaren 21era bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean aipatutako errolda horien ordainagiriak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga Bilketarako Araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2020ko urriaren 13a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA